

EUSKAL-ELERTIA

(S. ONAINDIA)

GURE JAKINTZA

Gure kulturea eskoletan baztertuta egon dala, esan eta esan gabiltz aspaldion. Eta ikastoletan be naikoa baztertuta izan da, izkuntza bera ikastea naikoa arazo izan dan urte oneitan.

Baiña aurrera goaz.

Gaur ikasle asko dira Oiñarri-Ikaskintza'ko lenengo urteetan euskera idatzia ondo ikasten dabena, eta oneik goragoko mailletara igoteko gertu dagoz.

Orregaitik, euskal-kultureari buruzko liburuak bear-bearreko biurtu jakuz. Agertu diran iru liburuak, LUTELESTIA, KONDAIREA eta ELERTIA, asko poztu gaitue.

Azkenengo ZER'en aurkeztu genduan Geografia edo LUTELESTIA eta beragaz batera esan genduan zerbait KONDAIRA'ri buruz. Gauu-ELERTIA aurkezten dogu.

Iru liburu oneik oso egokiak dira gure kulturearen lenengo oiñarriak ipinteko, geure burua ta geure Erria ezagutzeko.

AITA ONAINDIA

Aita Onaindia aspaldian daukagu Elerti-arloan berezituta.

Antxiña atera eban bere MILLA OLERKI EDER liburu txalogarria, gure poesia aztertzeke ta ezagutu-azoteko.

Oraintxe berton diardu EUSKAL-LITERATURA deritxon liburu gozagarria ateraten. Zazpi ale edo tomo izango dira eta bost agertu dira. Lan ikaragarria edozeiñentzat Aita Santi'k liburu ori egiteko ebatziagaz artu ebana.

Eta orain, ameak txitai janariak zeaztuta ta zeatuta emoten dautsezan antzera, bere billaketa sakona ikasleen aurrean jarteko, Onaindia'k ikastoletarako EUSKAL-ELERTIA argitaratu dau. Bearrezkoa zan eta argitaratzeko ordua be bai!

Berari eta Euba'ko Ibaizabal Argitarazleari, eskerrik beroenak emon-bearrean gagoz irakaskintzan lan egiten dogunok; bizkaieraz atera dituen liburu oneikaitik.

IRAKASBIDE BI

Elertia irakasteko, bide bi gitxienez artu leiz: Bata, elertiaren motak banan-banan artu eta bakoitxaren kondairea egin. Esaterako: Antzerkiaren, eleberriaren, barru-miñezko olerkiaren, jazoera-olerkiaren, izlaritzaren, izkuntzalaritzaren, kondaira-idazleen, eta abar, barriak emon. Eta bestea gizaldiz-gizaldi edo elerti-aldiz egin mota guztien komdairea.

Bigarren bide au artu dau A. Santi'k eta 7'garren eta 8'garren urterako eta beste mailletarako dan bezkero, egokiena dirudi. Egia esan, beste mai-



letarako eta gorengo mailarako be egokia cia liburu au. Ain gagoz be-maillan arlo onetan!

AURKIBIDEARI BEGIRA

Liburuak eskuetan artzen cloguzenean, sarritan Lenengo begirakunea aurkibidera egiten dogu, liburuaren egiturea zein dan ikusteko.

Liburua gizaldiz-gizaldi egiña da. Bear ba'da, °gokiago izango zan elertiaren aldiak ezartea, esaterako : Idazle zarrak edo Berbizkunde Aroa, Larramendi'ren aldia edo aldelarien (apolojisten) giroa, Barritzaileen edo aranatarren denporea, juda-aurrea, guda-ostea, Erribide ta Batu-berri'ren aldia edo gaurko giroa, baiña gizaldiz be ondo egiña da.

Irurogei idazle aztertzen ditu Aita Santi'k iakon-sakonetik, baiña beste 260 inguru dira euren idaz-lanakaz aitatuak.

IRAKASBIDEA

Olako ikas-liburu baten garrantzi aundikoa da artzen dan irakasbidea.

Ikas-gai bakoitxak zati oneik izaten ditu geienetan: Idazlearen bizitea ta lanak, bere idazkerearen azterpena, bere idatz-zati bat, berari buruzko ritxiak, itaunak eta beste idazle batzuk. Ba dauka ba irakasleak naikoa gai ikasleai aurkezteko.

Liburu atsegiña cia, argia, irudiz ondo apaindua ta margotsua.

OLAZAR'tar M'ek